

0840 ZB.KO DEKRETUA

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 38. artikuluan definitzen da egoitza elektronikoa. Definizio horren baitan, egoitza elektronikoa telekomunikazio-sareen bidez herritarrentzat eskuragarri dagoen helbide elektronikoa da. Haren titulartasuna Administrazio Publiko bati dagokio.

Sektore publikoaren bitarteko elektronikoaren bidezko jarduera- eta funtzionamendu-erregelamendua onartzen duen martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretuaren 9. artikulua gehitu du, egoitza elektronikoa horren bidez egingo direla Administrazio Publikoaren identifikazioa eta, hala badagokio pertsona interesdunen identifikazioa edo sinadura elektronikoa eskatzen duten prozedura edo zerbitzuei buruzko jarduera eta izapide guztiak.

Era berean, martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretuaren 10.2 artikulua ezartzen du egoitza elektronikoa sortzeko egintza edo ebazpena Lurraldeko Aldizkari Ofizialean eta dagokion sarbide orokorrean argitaratu behar dela, eta artikulua horretan jasotzen den gutxieneko edukia ere jaso behar duela.

Aurrekoa ikusita, legezko xedapenak betetzeko, eta sektore publikoaren bitarteko elektronikoaren bidezko jardunaren eta funtzionamenduaren erregelamendua onartzen duen martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretuaren 10. artikuluekin bat etorriz, eta Alkatetzari esleitutako eskumenen baitan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 a), d) eta s) artikuluetan jasotakoak,

ERABAKI DUT

Lehena.- Oiartzungo Udaleko egoitza elektronikoa sortzea, telekomunikazio-sareen bidez herritarrentzat eskuragarri dagoen helbide elektronikoa gisa, ezaugarri hauen arabera:

- Egoitza elektronikokoaren aplikazio-eremua Oiartzungo Udala eta haren mendeko erakunde edo organismo publikoak izango dira.
- Egoitza elektronikokoaren erreferentzia-helbidea honako hau izango da: Oiartzun.eus/egoitza eta zuzenean edo Udal honen interneteko ataritik sartu ahal izango da, helbide honetatik: www.oiartzun.eus.
- Egoitza elektronikokoaren titulartasuna udalari dagokio, eta hura kudeatzeaz eta herritarren eskura jarritako eduki eta zerbitzuei arduratuko da, bai eta haren bidez eskura daitekeen udal-eskumeneko informazio eta zerbitzuen osotasunaz, egiazkotasunaz eta eguneratzeaz ere.
- Egoitza elektronikokoaren kudeaketaz eta eduki eta zerbitzu komunez arduratzen den administrazio-unitatea Idazkaritza Sailari dagokio, eta egoitzaren kudeaketa teknologikoa Informatika Sailari.



Hala ere, dagokion gaiaren arabera eskumena duten sailek izango dute egoitza elektronikoaren bidez eskaintzen dituzten zerbitzuen kudeaketaren eta zerbitzuen ardura.

- Udalaren egoitza elektronikoan dauden eduki eta zerbitzuen zerrenda administrazio elektronikoari buruzko ordenantzan arautuko da.

Bigarrena.- Ebazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren sarbide elektroniko orokorrean argitaratzea.

Jexux Leonet Elizegi Alkate-Udalburu Jna.k agintzen eta sinatzen du, Oiartzunen, sinaduraren egunean.